Leitza Sexualitatea eta publizitatea hizpide Aurreran 3

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2010eko abenduaren 28a. VIII. urtea. 2.147. zenbakia. **www.tolosaldea.hitza.info**

Usabal kiroldegian jende asko bildu zen Xabi Alonso tolosarrari harrera egiteko. I. TERRADILLOS

Merezitako omenaldia

Tolosako Udalak Xabi Alonso futbolaria omendu zuen herenegun; lehenengo udaletxean bildu ziren eta ondoren, Usabal kiroldegira joan ziren guztiak

Usabalen futbolariaren izena daraman plaka erakutsi zuten eta ondoren, Alonsok Shanti Txapelketa ezaguneko ohorezko sakea egin zuen 6

492 etxebizitza gehiago, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrari esker

Horietatik %66 etxebizitza babestuak izango dira, hau da, 325; hasierako onespenaren ondotik alegazioak aurkezteko epea da orain 3

UEMAk haurrak euskaraz erregistratzeko deia egin du

Ikaztegieta, Amezketa, Aduna, Alegia, Belauntza, Elduain, Orexa, Baliarrain, Anoeta, Gaztelu, Leaburu-Txarama, Altzo eta Iruran honen aldeko mozioa onartu dute 2

Oinatz Bengoetxeak irabazi du Masters Kutxako Txapelketa

Aurreikuspen guztiak gaindituz Martinez Irujo gailendu zuen pilotari leitzarrak larunbatean; 22-8 emaitzarekin bukatu zen partida 7

Eguberri hauetan oparitu HITZAko harpidetza!

bertako egunkaria egin harpidetza:

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

Gure Tolosako bulegoan ere baduzu aukera:

Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa

SABIERRI

Adolfo Dominguez
Carolina Herrera
DKNY
Hugo

Kale Nagusia, 17 • TOLOSA
Tel.: 943 67 11 28 • www.saberri.com

Bidaiatzeko bi maleta zozketatzen ditugu

Hamahiru udalek haurrak euskaraz erregistratzearen aldeko mozioa onartu dute

UEMAko kide dira eta hauek laster guraso izango direnei egiten diete dei jada eskaerak egiten hasteko

Erredakzioa

Tolosaldeko UEMAko kide diren hamahiru udalek haurrak euskaraz erregistratzeko mozioa onartu berri dute. Hauek dira mozioak onartu dituzten udalak: Amezketa, Aduna, Ikaztegieta, Alegia, Belauntza, Elduain, Orexa, Baliarrain, Anoeta, Gaztelu, Leaburu-Txarama, Altzo eta Irura.

UEMAko udalek osoko bilkuran onartutako mozioaren helburua da «herrian haurrak euskaraz erregistratzeko neurriak hartzea» UEMAren hitzetan. Mozioa Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen izenean eraman dute udaletara, eta UEMAko beste udaletan hurrengo asteetan landuko dute gaia.

Mozioaren lehenengo puntuan adierazten denez, ez dago legezko mugarik haur jaioberrien erregistroa euskaraz egiteko, baina errealitatean euskaldunek ez dute hainbat izapide euskaraz egiteko aukerarik.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak emandako datuen arabera, EAEko 251 udalerritatik 231 udalerritan ez dago aukerarik, eta Tolosaldean, Tolosan bakarrik egin daitezke izapide guztiak euskaraz.

Mozioak honako hau dio, hitzez hitz: «Aparteko larritasuna du jaio eta berehala euskaldunen hizkuntza eskubideak urratzea, eta horregatik guraso izango direnei dei egiten diegu haurra euskaraz inskribatzeko eskaera egin dezaten».

Jarraitu beharreko pausoak

Hauek horrela, UEMAk haurra euskaraz erregistratzeko jarraitu beharreko pausoen berri ere eman du.

Lehenik eta behin gurasoek egin beharreko lehenengo tramite administratiboa jaioberria jaiotakoan hau inskribatzea izango da.

Haurra bi tokitan erregistratu daiteke: jaio den udalerrian edo gurasoek bizitokia duten udalerrian. Haurrak bake epaitegietan edo erregistro zibiletan erregistratu behar dira. Bertan, erregistro liburuan, jaioberriaren izenabizenak eta bestelako datuak idatzi behar dira, eta erregistro liburua gaztelaniaz dago. Administrazioak ez du inolako ahaleginik egin liburua euskaratzeko, nahiz eta 2005eko lege aldaketaren ondorioz euskaraz egiteko eskubidea legean jasota egon.

Urraketa horrek eragindako kexak direla eta, Jaurlaritzak iragarri zuen inskripzioak informatika bidez egin ahal izango zirela, baina horiek EAEko 20 tokitan bakarrik jarri dituzte, eta aplikazio informatikoa ezartzeko prozesua oso makal doa. Nafarroan, aldiz, eremu euskalduneko udalerrietan eta Iruñean aplikazio informatikoa ezarrita dago, eta gurasoek badaukate jaioberriak euskaraz erregistratzeko aukera.

Guraso izango direnentzako mezua

Egoera hori izanik, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea, Hizkuntza Eskubideen Behatokia eta euskalgintzako beste eragile batzuk guraso izango direnei dei egin diete haurrak euskaraz erregistratzeko eskaerak egiteko. Eskaera ereduak udalen eta UEMAren esku daude. 943 26 03 72 telefono zenbakira ere deitu daiteke.

Eskaeretan, gurasoek zehaztu behar dute haurra noiz den jaiotzekoa eta eskatzen dute ordurako euskaraz erregistratzeko baliabideak jar ditzaten.

Asko dira han-hemenka eskaera hori egin duten gurasoak, eta horietako batzuk eskualdekoak dira. Adibidez, Adunan, bi gurasok egin dute eskaera eta Zizurkilen, batek.

Eskualdetik kanpora, besteak beste, herri hauetan egin dituzte eskaerak: Usurbilen, Andoainen, Bermeon, Igorren, Zestoan…

Zarautzen, adibidez, guraso batzuek agerraldia egin zuten prentsaren aurrean, euren herriko egoera salatzeko.

Mozioaren edukiari dagokionez, haurrak erregistratzeko mugez gain, bake epaitegietako gainerako tramiteak euskaraz egin ahal izatea ere eskatu dute udalek, eta Eusko Jaurlaritzari eskatu diote udalerri euskaldunei lehentasunezko trataera garbia emateko hizkuntz politikari lotutako gaietan.

Erregistro liburua oraindik ere gaztelaniaz dago. E.MAIZ

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Leitzan 100 m2-ko pisua salgai. Norberak bere gustura jartzeko moduan. 687 40 52 33.

■ **Motorra.** Suzuki RMZ 450-a salgai. 2006. urtekoa eta egoera oso onean. 635 75 09 15.

■ **Eskopeta.** Bereta markako eskopeta railatua salgai. Oilagorretarako aproposa, bi kanoi jokurekin. 2007koa da eta oso gutxi erabilia dago. Harremanetarako telefono zenbakia: 635 75 09 15.

ALOKAIRUA

■ **Baserria edo borda.** Baserri edo borda xume bat alokatuko genuke. Harremanetarako: 634 45 91 10

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

→ Laburrak

Saskibaloi txapelketa antolatu du Bonbereneak

TOLOSA › Bonbereneak Saskibaloi Txapelketa antolatu du lehen aldiz. Hitzordua gaur izango da eta bertan zortzi talde ariko dira lehian. Partidak 10:00etan hasiko dira Bonbereneako kantxa berrian.

Urteko azken ohiko batzarra, etzi

AMEZKETA › Urteko azken ohiko batzarra egingo dute etzi, osteguna, Amezketan. 20:30ean izango da eta bertan gai hauek izango dituzte hizpide, besteren artean: Larraitz bideko AIU-4. eta UE4.1.eko birpartzelaketa proiektu aldaketaren behin-betiko onarpena, 2011. urterako kultura arloko diru-laguntzak eta batzorde informazioa.

Plazako dantzak ikasteko ikastaroa, gaur

IBARRA › Alurr dantza taldeak ikastaro bat emango du gaur 20:00etatik 22:00etara. Ikastaroa dantza taldearen lokal zaharrean izango da eta bertan plazako dantzak irakatsiko dituzte. Helburua Alurren dauden haurren gurasoei dantzak erakustea izango da dantza taldeak agertu duenez.

Txuri-Urdinera irteera gaur, 10:30ean

ANOETA › Eguberrietako egitarauaren baitan Anoetako gazteak Txuri-Urdinera joango dira gaur 10:30etik aurrera. Autobusa farmazia aurreko geltokitik aterako da eta 14:00etan itzuliko da Anoetara.

Inoxende eguna ospatuko dute gaur

IRURA › Inoxende eguna izango dute gaur gaztelekuan 17:00etatik 19:00etara. 17:30ean, berriz, Diskojaia izango dute pilotalekuan. Haur eta gaztetxoentzako dantza eta jokoak izango dira Diskojaian.

Haurrentzako emanaldiak kultur etxean

IBARRA › Eguberrietako egitarauaren baitan etxeko txikienek *Elvi* sabel-hiztunaren emanaldia ikusi ahal izango dute gaur 11:30etik aurrera Benito Izagirre kultur etxean. Bihar berriz, *Gabonetako euskal ipuinak* saioa izango da 11:30ean kultur etxean.

Hirigintza Plan Berriarekin 492 etxebizitza egin ahal izango dituzte

Zortzi gunetan banatuta, %66 babesekoak izango dira; hasierako onarpena eman diote honi

Erredakzioa Ibarra

Joan den asteartean egindako Osoko Bilkuran hasierako onespena eman zion Ibarrako Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorrari. Honen arabera, 492 etxebizitza egin ahal izango dira hau indarrean dagoen bitartean. Horietatik %66 babestua izango da, hau da, 325.

Planari hasierako onespena eman ostean, orain herritarrek alegazioak aurkezteko garaian daude. Behin epealdi hau bukatuta, eta aurkeztutako alegazioak aztertu eta hala badagokio, aldaketak eginda, behin-behineko onespena emango diote Udal ordezkariek Planari. Honen ostean Gipuzkoako Foru Aldundiari igorriko diote honek aztertzeko eta ondoren, behin-betiko onespena emateko.

Lurzoruaren Legera egokitutako Plana

Egun indarrean dagoen Plan Nagusia 1991n izan zen ezarria. Ibarrako alkateak azaldutakoaren arabera, «2006an, Lurzoruaren Lege berria egin zen, eta Ibarrako Plan Orokorrak ez zituen bertan agertzen ziren zenbait arau biltzen». Horregatik, indarrean dagoen araudira egokitzen den Plan bat osatu dute orain.

Hasierako onarpena jaso duen Hirigintza Planak 492 etxebizitza berri egitea aurreikusten du. Horien %10ak 55 metro karratuko azalera izango du. Hau, «gizartean familia ereduak izandako aldaketaren ondoren sortutako beharrei erantzuteko» dela diote udalekoek.

Hainbat eremuri kalifikazio berria

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra lurzoru urbanizagarri bezala lau eremu berri jotzen ditu: Arane, Montes, Ibategi eta Ezeizenea-Errekondo. Lehendabiziko gune edo inguruan 120 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da, bigarrenean, 125, hurrengoan 69 eta azkenekoan, 61.

Lurzoru urbanizagarri izendatu da eremu hau. E. EZEIZA

Bestetik, lurzoru urbanizatu eta kontsolidatu bezala, beste lau gune izendatu dituzte: Gurutzeaga, Malkorrane-Exkuxar, Elduaran eta Eliz Aurre. Hemen, orotara 117 etxebizitza berri eraikiko dituzte.

Gainera, jakitera eman dutenez, eraikiko liratekeen 492 etxebizitzek, beren lurrazpiko garajeak izango dituzte. Honekin, «auzotarren gorakadaren ondorioz sor daitezkeen aparkaleku arazoak ekidin nahi dituzte».

Plan Orokorra

LURZORU URBANIZAGARRIA

- **Arane.** 120 etxebizitza berri. Horietatik 66 babes ofizialeko, 24 tasatu eta 30 salmenta libreko.
- **Montes.** 125 etxebizitza berri. 69 babes ofizialeko, 20 tasatu eta 31 salmenta librekoak.
- **Ibategi.** 69 etxebizitza berri. Horietatik 38 babes ofizialeko, 14 tasatu eta 17 salmenta librekoak.
- **Ezeizenea-Errekondo.** 61 etxebizitza berri. Horietatik 31 babes ofizialeko, 12 tasatu eta 15 salmenta libreko.

LURZORU URBANIZATUA

- **Gurutzeaga.** 29 etxebizitza berri. Horietatik 6 babes ofizialekoak, 6 tasatuak eta 17 salmenta librekoak.
- **Malkorrane-Eskuxar.** 62 etxebizitza berri. 12 babes ofizialeko, 13 tasatu eta 37 libre.
- **Elduaran.** 12 etxebizitza berri. Horietatik bi babes ofizialeko, hiru tasatu eta zazpi salmenta librekoak.
- **Eliz Aurre.** 14 etxebizitza berri. Horietatik hiru babes ofizialeko, hiru tasatu eta zortzi salmenta libreko.

Atekabeltzen eskutik sexualitatea publizitatean hizpide

Leitzako Bilgune Feministako kide batek emango du hitzaldia gaur 19:00etan, Aurrera elkartearen egoitzan

Erredakzioa Leitza

Atekabeltz herriguneak hainbat ekimen antolatu ditu datozen egunetarako. Lehendabizikoa gaur bertan izango da. *Sexualitatearen eraikuntza lurrinen iragarkietan (erabilitako estimulu komunikatiboak eta sexualitate ereduak)* izenburupean, hitzaldia eskainiko du Leitzako Bilgune Feministako kide den Saioa Iraolak. Aurrera elkartearen egoitzan 19:00etan izango da solasaldia.

Etzi berriz, Truke Azoka izango da egun guztian zehar, Karrapen. Eta 18:00etan, talo tailerra, edatekoak, jatekoak...

Zezen-plaza izotz pista bilakatuko da asteburu honetan

Larunbatean zabalduko ditu ateak; goizez nahiz arratsaldez joan ahal izango da bertara patinatzera

Erredakzioa Tolosa

Tolosako zezen-plaza itxuraz erabat aldatuko da larunbatetik aurrera. Ohiko hondar geruza beharrean, izotzezkoa ikusi ahal izango da urtarrilaren 1etik aurrera. Udalak negu honetarako martxan jarri duen ekimena da hau.

Goizetan 09:00etatik 13:00etara bitartean eta arratsaldetan 16:00etatik 17:00etara egongo da zabalik izotz pista. Sarrerak unean bertan, zezen-plazako lehiatilan eskuratu ahal izango dira bi euroren truke. Aurreikuspenen arabera Inauteriak arte egongo da zabalik.

Egun hauetan ari dira azken prestaketak egiten, larunbaterako prest egon dadin. Izotza egiteko makina berezi bat ekarri dute Bartzelonatik. Jokin Bildarratz alkateak azaldutakoaren arabera, «Gasteizko Florida parkean erabiltzen duten sistema hartu dute eredutzat». Udal ordezkariak duela bi aste izan ziren hura probatzen eta «asko gustatu zitzainez» hemen ere jartzea erabaki dute.

Aurtengoa probarako izango omen da, eta erantzun ona jasotzen badu, datozen urteetan errepikatuko dutela gaineratu dute udal ordezkariek. Bestalde, kokaleku gisa, zezen-plaza aukeratu dute, «izan ere, datozen asteetarako bertan ez zegoen ekitaldi berezirik programatuta, eta hiriaren erdigunean egonda, egoki ikusi dute». Tokiak berak baldintzatzen du epealdia ere, Inauterietarako berriro libre egon beharra baitauka.

Tolosak eta Venta de Vañosek sendotu egin dute beraien harremana

Ekainetik anaituta daude bi herriak; han jokatu zen nazioarteko krosean izan dira udal ordezkariak

Erredakzioa Tolosa

Palentziako Venta de Baños herrian izan dira Oscar Renedo Tolosako Udaleko kiroletako zinegotzia eta Andoni Imaz, Realeko jokalari ohia. Venta de Bañoseko Nazioarteko Krosa jokatzen zen bertan, baita futbol zelai bat inauguratu ere eta Tolosa ordezkatuz izan dira eskualdekoak.

Aurtengo ekainean anaitu ziren Palentziako hiria eta Tolosaldeko hiriburua. Bi udalerriek sinatutako akordioaren helburua da, aspalditik eta batez ere, kirol arloan duten harremana finkatzea.

Oskar Renedo zinegotziaren esanetan «Venta de Baños bigarren etxea da tolosarrentzat», horregatik, «Palentziako herri honentzat giltzarri diren bi ekitaldi tan hartu dute parte». Honez gain, babesa erakutsi nahi izan diete, nazioarteko krosean parte hartu duten 20 korrikalariei.

Aipatu bezala, 150. urteurreneko futbol zelaiaren inaugurazio ekitaldian ere parte hartu zuten Renedo eta Imazek, Venta de bañoseko alkatearekin batera. Azkenik, korrikalari tolosarrei animatzen aritu ziren krosean. Gainera, nabarmentzekoa da, jubenilen mailan Unai Arroyo tolosarra izan zela garaile. Bere ibilbidean, marka bikainak lortu ditu eskualdeko gazteak. Izan ere, 2008an eta 2009an Espainiako Txapelketa irabazi zuen eta aurten Europakoan hirugarren geratu da.

Bestetik, Venta de Bañosekoan, Ander Ortiz, maila berean, laugarren sailkatu zen.

Irudia ○ Eguberriak

EGUBERRIEI HASIERA KANTUAN ETA OLENTZEROREKIN

Eskualdeko hainbat lekutan Olentzeroren etorrera ospatu zuten eta ikazkinaren bisita jotzeaz gain, Gabon kantak ere abestu zituzten. Esaterako, Tolosan eguraldiari aurre egin zioten aterkiekin herriko hiru ikastetxek –Samaniego, Laskorain Ikastola eta Hirukide– udaletxe aurrean egindako saioan (Goian ezkerreko argazkian). Samaniegokoek Berdura plazan aterpea izan zuten lasaiago abesteko (goian eskuinean). Belauntzan Olentzerori harrera egin zioten (erdiko argazkietan) eta Areson, besteak beste, haurrek mezan abestu zuten eta eskolan oporrak hartu aurretik jaia egin zuten (beheko argazkiak). HITZA

sarrerak
HITZAK harpidedun batentzat sarrera parea du
LAGUN ARO GBC
Meridiano Alicante
saskibaloi partida
Urtarrilak 2 • Igandea
18:00etan
Donostiako Ilunben
sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira
SAN SEBASTIAN GIPUZKOA BASKET S.A.D.

Irudia ○ Tolosa

HODEIERTZ ABESBATZAREN GABON KONTZERTUA

Tolosako Santa Klara komentuan Hodeiertz abesbatzak ohiko emanaldia eman zuen igandean. Hodiertzekin lotura duten Hodeitruk, Hodeitruk Samaniego eta Hodeitruk Hirukidek ere bere saioa egin zuten. Kontzertua ere berezia izan zen, Hodei talde berriaren aurkezpena izan baitzen. Hodeitruk gaztetxoen taldea bada, Hodei 18 urte inguruko abeslariek osatzen dute. Egun bertako partaide guztiak neskak dira. Bere aldetik, Hodeiertz abesbatzak Pello Ramirez eta Xabier Zeberio musikariekin batera abestu zuen. Enrique Azurza zuzendariak azaldu zuenez, «oso gustura» aritu ziren abesbatzakoak. HITZA

Irudia ○ Aldaba

EGUBERRI DOINUAK ELIZAN

Tolosako Aldaba auzoan Eguberrietako emanaldiaz gozatzeko aukera izan zuten. Donosti Ereski eta Ereskitxo abesbatzek kontzertua eman zuten Aldabako elizan. Saioa «oso ondo» joan zela azaldu dute antolatzaileek. Miguel Zeberio tolosarrak zuzendu zituen bi taldeak. HITZA

Irudia ○ Tolosa

BANDAREN EMANALDIA

Tolosako Musika Bandak Eguberrietako kontzertua eman zuen Triangiloa plazan jarritako eszenatokian. Ohiko jantzia etxean utzita eta artzain-andrez jantzita, hainbat pieza jo zituzten, entzutera joan zirenei musikaren berotasuna emanez Eguberri bezpera hotzari aurre egiteko. HITZA

BERRIA taldeak
zure laguntza behar du
HITZAk inoiz baino irakurle gehiago ditu, baina inoiz baino baliabide ekonomiko gutxiago. Interneten eta paperean, gure komunikazio proiektuak berriro eta indartu ditugu udaberrian. Apustu hau aurrera ateratzea da, zuekin batera, gure erronka.
Bihar ere euskaraz bizitzeko tresnak izan ditzagun!
Ekarpena egiteko bideak
50 € • 100 € • edo nahi duzun kopuruarekin
Lagundu gaitzazu ekonomikoki
- Transferentzia Euskadiko Kutxan: 3035 0060 48 0600113162 (izen-abizenak zehaztu)
- Kreditu txartelaren bidez: zuzaraberria.info webgunean
berriketan.info
badek
Harmaila
www.euskalherriko plaza.com
iragarkilaburrak.com
berria taldea

Bere jaioterrian jaso zuen omenaldia Xabi Alonso futbolari tolosarrak herenegun; gazteek ederki gozatu zuten berarekin argazkiak eginez

«Oso polita eta berezia izan da»

Shanti Txapelketan parte hartu zueneko taldekideak eta argazkia. I. TERRADILLOS

Iñigo Terradillos Kirola

Hitzordu berezia zuen Xabi Alonso futbolari tolosarrak herenegun, bere jaioterrian. Bere omenaldia, hain zuzen ere. Herriko hainbat futbolari gaztek arkua eginez sartu zen Alonso udaletxera. Han bildu ziren bere futbol ibilbidean bidelagun izan dituen pertsonaia ugari, entrenatzaileak, presidenteak edota jokalariak, besteak beste. Bere senitartekoak eta lagunak eta une hori galdu nahi izan ez zuten zaleak ere gerturatu ziren bertara.

Bere gertukoek berari buruz prestatu zuten bideoa ikusi zuten lehendabizi. Bertan, Periko eta Mikel aitak eta anaiak, eta familiako beste kideek eta lagunek edota bere taldekide eta entrenatzaile izandakoek txikia zenetik Real Madrileko jokalari izatera iritsi arte bere bizitzaz errepasua egin zuten. Une hunkigarriz eta umoretsuz beteriko bideoa asko eskertu zuen Alonsok, «gertuko jendeak nitaz horrela hitz egitea oso polita baita».

Jokin Bildarratz Tolosako alkateak bordondantzari makila eta domina oparitu zizkion, eta ondoren Samaniegoko ikasleek bertsoak kantatu zizkioten. Batzar aretoan argazkiak ateratzeaz bukatuta, udaletxearen kanpoaldean zain zeuden zaleek jarraitu zuten, guztiek nahi baitzuten futbolariarekin batera argazkia egin.

Gaztetxoekin argazkiak

Usabal kiroldegian jarraitu zuen omenaldiak, eta han ere argazkiak izan ziren nagusi, gazte ugariren gozamenerako. Halaber, berari ere argazki berezi bat oparitu zioten, Shanti Txapelketan gaztetxoa zela atera zeneko taldearena, hain zuzen. Gainera, taldekide izan zituen haiek berarengana gerturatu ziren. Tolosa CFko egungo elastikoa ere jaso zuen, Iñaki Arratibel Tolosa CFko lehendakariaren eskutik.

Shanti txapelketako parte-hartzaile guztien artean Realak eta Real Madrilek jokatuko duten partidarako sarrerak zozketatu zituzten, eta irabazlea Asteasuko taldea izan zen. Aurreskua dantzatu ostean, ohorezko sakea egin zuen futbolari tolosarrak, eta horrela eman zioten hasiera aurtengo Shanti Txapelketari.

> «Familia eta hainbeste lagun etxean topatzea oso hunkigarria eta polita izan da»

Xabi Alonso «hunkiturik» azaldu zen jaioterrian jasotako omenaldiarekin. «Esperotakoa baino handiagoa eta politagoa» izan zela adierazi zuen ekitaldia amaitzean. Era berean, eskerrak eman zizkien, bai Udalari, familiari, lagunei eta omenaldia prestatu zuten guztiei. «Etxera etorri eta familia eta hainbeste lagun topatzea oso polita da, oso egun berezia izan da», esan zuen.

Tolosako udaletxera sartzean arkua egin zioten hainbat gaztek Xabi Alonsori. I. TERRADILLOS

Udaletxearen kanpoaldean bezala, Usabal kiroldegian argazkiak egin zituen Xabi Alonsok zaleekin. I. T.

Masters Kutxako Txapelketa eskuratu du Bengoetxeak

Martinez Irujoren aurka 22-8 irabazi zuen larunbatean jokatu zen finala; Iberokoa gainditu duen lehen aldia da

Erredakzioa Leitza

Aurreikuspen guztiak gainditu, Oinatz Bengoetxeak irabazi du Masters Kutxako Txapelketa. Larunbatean jokatu zuen finala leitzarrak Juan Martinez Irujoren aurka, eta 22-8ko markagailuarekin amaitu zen partida.

Iberoko aurrelaria agintzen hasi zen markagailuan, baina Bengoetxea ondo sartu zen partidan eta Lau t'erdiko txapeldunak ezin izan zion buruz burukoan erantzun. Zortzigarren tantura arte parekaturik joan zen partida, baina hortik aurrera beste norabide bat hartu zuen.

Hain zuzen ere, 8-10ekoa izan zen Irujoren azken tantua, hortik aurrerako guztiak Bengoetxeak egin baitzituen. Ondorioz, finala oso azkar erabaki zen, ordu erdi baino gutxiago iraun zuelarik.

Leitzarrak joko azkarra eginez egin zion eraso aurkariari. Horrez gain, fin aritu zen sakean. Hutsegiteak ere ohikoak izan ziren larunbateko finalean, batez ere Irujok eginak.

2008tik garaipen bila

2008. urtean bakarkako txapelketa irabazi zuen Oinatz Bengoetxeak. Ordutik, ordea, ez du zorte handiegirik izan norgehiagoketan. Leitzarrak Irujo gainditu duen lehen aldia izan da Labritekoa. Garaipen hau ez dago pilotari guztien eskura, eta are gutxiago 8 tantoan uztea.

Masters Kutxako Txapelketako finala irabazita, 12.000 euroko saria eskuratu du Leitzako pilotariak.

leitza@hitza.info

Eguberrietako Aizkora Txapelketako lehen itzulia irabazi du Olanok

Zortzi aizkolari lehiatu ziren herenegun, Amazabal pilotalekuan; hurrengo proba hilaren 31n izango da Asteasun

Erredakzioa Leitza

Amazabal pilotalekuak Eguberrietako Aizkora Txapelketako lehen proba hartu zuen herenegun, eta irabazlea Arkaitz Olano izan zen.

Leitzarra finalean gailendu zen, bi enborrak 4 minutu eta 5 segundoko denboran ebakita. Bere atzetik sailkatu zen, 16 segundora, Berako Oihan Larretxea.

Lehen aldiz antolatu dute Eguberrietako Aizkora txapelketa. Zortzi gaztek hartu zuten parte Leitzan jokatu zen lehen itzulian. Horiek kanporaketa sistema jokatu zuten 54 ontzako enborrarekin. Lan hori eginez sailkatu zirenak finalean lehiatu ziren, kasu horretan 54 ontzako bi enborrekin.

Txapelketako hurrengo lehia Asteasun izango da, ostiralean, hilaren 31n, 17:00etan.

leitza@hitza.info

Irudia ▸ Alegia

PILOTARIEN TOPAKETA POLITA

Gabonetako IX. Pilota Topaketa ari dira egiten Alegian, Amezketan, Altzon eta Ikaztegietan. Hain zuzen ere, lau herri horietako 5 eta 14 urte bitarteko 91 gaztetxo ari dira parte hartzen pilota partidetan. Gaurkoan, esaterako, lau herrietako frontoietan izango dira benjamin aurrekoak, kadete, benjamin, alebin eta infantil mailakoen norgehiagokak 16:00etatik aurrera. Finalak, berriz, etzi, ostegunean, izango dira ikusgai, Amezketako Larrunarri pilotalekuan, 16:00etatik aurrera. PATXI RENOBALES

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK · 18:30ak arte hartzen ditugu · tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

2010-12-28 Eguraldia

Goiza | Arratsaldea | Tenperatura | Bihar

13º
7º

GOIZA LAINOTUA
ARRATSALDEA LAINOTUA
BEROENA 14º
HOTZENA 8º

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_publi@tolosaldekohitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo @hitza.info.
Anoetaldea: 687 410 022. anoetaldea @hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea @hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea @hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea @hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

ANTZERKIA

■ **Ibarra.** *Elvi*sabel-hiztunaren emanaldia, 11:30ean, Benito Izagirre kultur etxean.

AZOKA

■ **Tolosa.** Sahara eta Ekuadorren aldeko Merkatu Txikia, Laskorain ikastolak antolatuta, kultur etxean.

HITZALDIAK

■ **Leitza.** *Sexualitatearen eraikuntza lurrinen iragarkietan (erabilitako estimulu komunikatiboak eta sexualitate ereduak)* hitzaldia, Aurrera elkartean, 19:00etan, Atekabeltz elkarteak antolatuta.

GAZTEENTZAT

■ **Anoeta.** Txuri-Urdinera irteera. 10:30ean aterako da autobusa farmazia ondoko geltokitik eta 14:00etan itzuliko da.
■ **Irura.** Inoxente eguna gaztelekuan, 17:00etatik 19:00etara. 17:30ean Diskojaia pilotalekuan, haur eta gazteentzako dantza eta jokoekin.
■ **Tolosa.** Makilaje tailerra egingo dute Topagunean. Gabonetako haur parkea zabalik egongo da goizez eta arratsaldez.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia ▸ Ibarra

GAZTETXEKO SORGINAK

Ibarrako Gazte Asanbladak ukendu ikastaroa antolatu zuen atzokoan. Eider Ijurko eta Naiara Lopetegi sorginak izan ziren belarren inguruko jakintza Gaztetxean zabaldu zutenak. Aloe-Vera eta plantina ukenduak prestatu zituzten 20 gazteren laguntzaz. Ikastaroaren ondoren, azaleko zauri eta arnas-bideekin arazorik ez dute izango behintzat Ibarrako gazteek. HITZA

Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

• HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
• HITZAren egoitza Leitzan: Udaletxeko bulegoa

EZAGUTU WEBGUNE BERRIAK

www.TOLOSALDEA.hitza.info
www.IBARRALDEA.hitza.Info
www.VILLABONA-AIZTONDO.hitza.Info
www.ALEGIALDEA.hitza.Info
www.LEITZALDEA.hitza.Info
www.ANOETALDEA.hitza.Info
www.TOLOSA.hitza.Info